



Aurrera neskak, baina nora?

Baina goizean goizeko elkarrizketak nire onera ekarri nau segituan. egunerokotasuna horrelakoa ez delako. Futboleak jokatzen duten alabek gurasoak ongi dakigu berdintasuna oso urruti dagoela: bidaia, ekipamenduak, soldatak... eta, noski, txikiak direnean non entrenatzen duten, non jokatzeak aukera duten helduak direnean, zenbaterainoko garrantzia ematen dieten klubek...

Kirol mundua eta dirua elkarren eskutik doaz, eta, agian, hemen-dik aurrera partidu orotara 21.234 pertsona joango bagina, segurue-na gure neskei bestelako protago-

Nik ez dut nahi horrelako eredurik gure haurrentzat, kirolari izateagatik milioiak kobratzen dituzten emakumeak, miretsiak, nartzisismoan gaixotuak... Ez, mesedez! Eraiki dezagun zerbait askeagoa, hobea; eta baldintza duinak izanik beste lanbide bat, besterik ez, bihur-

Eraiki dezagun zerbait osasuntsuagoa, elkarkidetasuna bultzatzen duena, talde giroa eta kirol zaletasuna. Eraiki dezagun emakumeena den zerbait, geurea dena, guk nahi dugun zerbait eta on egiten diguna. •

